Langabeziaren jaitsierak ez du zertan berri ona izan

ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Azaroan okupazio-datu errekorrak erregistratu dira Espainiako Estatuan: 61.768 langile gehiago daude Gizarte Segurantzan afiliatuta (serie historikoko daturik altuena), eta langabezia pandemiaren aurreko zifretara jaitsi da (3.182.687 pertsona). COVID-19ari aurre egiteko ezohiko neurri ekonomikoei buruzko lehen lege-dekretutik ia 2 urtera, okupazio-mailan eragin positiboa agerikoa eta objektiboa da. Hala ere, argazki honek ez dizkigu erakusten estatu espainiarreko langile klasearen errealitatearen aurpegi guztiak.

2013tik, langabeziak goia jo zuenetik Estatuan (%26,66), lanpostuen sorrera etengabea izan da 2019ko hirugarren hiruhilekora iritsi arte, langabezia-tasa %12,23koa zenean. Hala ere, lan-merkatuan sartzen ziren pertsonek beste egoera batean egiten zuten, batez ere emakumeek. Bi lan-erreformek taxutu zuten lan-merkatu berria: enplegu sorrera okerrago ordaindutako lanetan kontzentratu da, aldi baterako kontratuekin, azpienplegu handiarekin eta kaleratze oso merkearekin. Barne-debaluazioko prozesu horrek eragina izan du langileen eta kapitalaren jabeen artean errenta banatzerakoan. Kontabilitate nazionaleko datuekin, argi ikus dezakegu laneko errentek langabezia-tasaren pareko bilakaera izan dutela: langabezia zenbat eta gehiago jaitsi, orduan eta gehiago jaitsi da langileriak eramaten duen pastelaren zatia. Eta txanponaren beste aldea: kapitalak gero eta gehiago bereganatzen du ekoitzitakoaren totaletik.

> Laneko errentek langabezia-tasaren pareko bilakaera izan dute: langabezia zenbat eta gehiago jaitsi, orduan eta gehiago jaitsi da langileriak eramaten duen pastelaren zatia

Langabeziaren jaitsierak ez die langileei galerarik eragiten zuzenean, ez litzateke egokia bi aldagai horien artean kausalitate-erlazio zuzena ezartzea. Izan ere, langabeziaren hazkundea bat dator laneko errenten igoerarekin, baina ez soldatak igotzen direlako, krisiaren lehen uneetan enpresen irabaziak oso azkar amiltzen direlako baizik; eta mozkinen beherakada horren ondorioz, enpresek kaleratzeak egiten dituzte. Ekonomiak hobera egiten duen heinean, kapitala aberastu egiten da berriro. Pastela handitzen da ekonomia hazten delako, baina gero eta prekarizatuago dauden langileen pastelaren zatia proportzioan txikiagoa da, nahiz eta, eurak izan pastelaren egiazko ekoizle bakarrak.

Langabeziaren hazkundea beti izango da albiste txarra langile klasearentzat. Baina okupazioaren hazkundeak, kapitalismo espainiarraren baitan, ez du zertan berri ona izan. ●